



Etixerik ez izateak hil egiten du

Bere ametsak, bere aukerak, bere konfiantza, bere osasuna... Bere eskubideak

eta zuk, zer diozu?
esan aski da

INOR EZ ETXERIK GABE



Etixerik gabeko pertsonen kanpaina
2020ko urriak 25

ETXEBIZITZA GIZA ESKUBIDE BAT DA

Covid19 gaixotasunak sortutako egoerak agerian utzi du etxerik gabeko pertsona askoren edo etxebizitza eskasetan, osasunari dagokionez kaskarrak eta nolabaiteko segurtasunez bizitzeko oso duinak ez diren lekuetan, bizi diren pertsonen errealitatea.

**BAINA, GALDETU AL
DIOZU ZURE
BURUARI INOIZ NOLA
SENTITZEN DIREN
ETXEBIZITZARIK
GABE, BABESIK
GABE? NOLA BIZI
DIRA EGIAZ
PERTSONA HORIEK?**

Testuinguru honetan ***“etxebizitza coronavirusaren aurkako lehen defentsa-lerro bilakatu da”***

(Leilani Farha, etxebizitza egoki baterako Nazio Batuetako errelatorea) eta **herritarri zuzendutako neurriak**, esate baterako, higiena areagotzea, etxean geratzea edo distantzia sozial zorrotza, **ez dira errealista eta posible kalean bizi diren pertsonentzat.**

ETXERIK EZ IZATEAK:

- **ATERPERIK EZ IZATEA EKIDITEN DU.**
- **OSASUN FISIKOAN ETA BURU OSASUNEAN ERAGINA IZATEA DAKAR.**
- **GIZA HARREMANAK ERAGOZTEN DITU.**
- **BABESERAKO ESPAZIO BAT IZATEA EKIDITEN DU.**

800.000 familia eta **2,1 milioi pertsona inguru segurtasunik eza egoeran dauden etxebizitzan** ("Espainiako Bazterkeria eta Gizarte-garapenari buruzko Foessaren VIII. txostena")

Espainiak ez du alokairuzko gizarte-etxebizitza parke egoki bat. Soilik 275.000 etxebizitza inguru ditu, etxebizitza nagusien parkearen % 1,5 (Arartekoaren "Etxebizitza babestua eta gizarte-alokairua Espainian 2019" txostena).



ERRONKAK ETA ABAGUNEAK

- **Gizarte** modura aurrera egitea **Herri Administrazioei eskatzeko** pertsona guztientzat **bizitza duina eta Giza Eskubideetarako irismena eta gozamena berma dezaten**, gogoan izanik etxebizitza dela osasuna, bizitza eta duintasuna zaintzeko lehendabiziko babes-hesia.
- **Beste gizarte-erakunde batzuekin sarean lan egiteko espazioak bultzatu eta horietan parte hartzea**, eta gizarteratze-prozesuak ahalbidetzen dituen **gizarte-babes sistema indartsu** baten alde egitea.
- **Hedabide sentsible eta egiati** batzuk izatea, **etxerik gabeko pertsonak bizi diren** egiazko egoerari **buruzko sentsibilizazioa heda dezaten**.
- **Zaintzen gizarte baterantz aurrera egitea, non komunitate modura** elkartasuna, justizia eta enpatia **berreskura ditzagun balio nagusi gisa**.

esan aski da!
INOR EZ ETXERIK GABE. POSIBLE DA

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



FINANTZATZAILEA

